# EURIA EGIN ONDOREN

Testua eta irudiak: **MIGUEL CERRO**

Itzulpena: **FERNANDO REY**

ISBN 978-84-7681-913-5

Kartoi gogorrean egina. 19,5 x 29 cm. 32 orrialde.

15 €.

Azeritxo bat opari zuk muntatzeko eta jostatzeko.

ALBUM IRUDIDUNAK EGITEKO NAZIOARTEKO VIII. “COMPOSTELA” SARIA.

**2. argitalpena**

**–urria, 2018–**

*Behin batean, bazen baso zoragarri bat,*

*argiz betea, animalia mota asko eta asko bizi zirena.*

*Egun batez, bat-batean, euria hasi zuen.*

*Eta ez zuen atertzen, gero eta gehiago ari zuen, barra-barra...*

“Euria egin ondoren” alegia moderno bat da, bereziki hiru ideia bat lantzen duena: ezbeharrak gainditzeko, ingurunera egokitzeko eta, talde batek bizirik irauteko xedez, denen arteko lankidetza indartzeko prozesua. Uholde batek hartuko du basoa, eta hango biztanleak aurrera ateratzeko ahaleginetan ariko dira behin-behineko babesleku batean. Azeri ttiki bateak bere burua eskainiko du jana eta ura bilatzeko, baina taldea ez da fidatzen ez haren gaitasunez ez asmoez, eta beste batzuei ematen dizkie lan horiek.

Album irudidunak egiteko Nazioarteko VIII. Compostela Sarian elkartasuna da muina, baita talde lana ere, oinarrizko premiak asetzeko funtsezko osagai batzuk dituena, immaterialak ere bai.

Irakurketa sakonagoa eginez, azeria –literaturan eta herri kulturan gaizto eta maltzurtzat hartua– mesfidantzaz hartzen dute lagunek, baina, azkenean, denak harrituko ditu espero ez zutena eginen baitu denen hobe beharrez. Kontakizun honen protagonistak bihotza ukituko digu, maiz, inozo-inozo, ezinezkoa dena lortu nahi duenean.

Miguel Cerrok istorio ongi findua aurkezten digu: pertsonaiak xehe-xehe aztertuak, kontakizun klasikoaren egitura, ikuspegien osaera. Naturak berebiziko garrantzia du, eta kontraste kromatiko nabarmenak eskaintzen dizkigu: erauntsiaren aurreko eta ondoko koloreak, egunaren eta gauarenak.




- **Gaia:** ezbeharrak nola gainditu.
- **Adin egokia:** 6 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzeko modukoak:** Compostela Saria; biziraupena, guztien ona; elkartasuna, Gehiegizko babesaren aurrean, lankidetza, mesfidantza, aurreiritziak.

**Miguel Cerro**

(Kordoba, 1985)

Diseinu grafikoko goi mailako teknikaria da, eta prestakuntza zabaldu du irudigileekin egindako zenbait ikastaro eta tailerri esker. Irudigintza eta diseinu grafikoa du ogibidea 2008az geroztik. Hainbat diseinu, publizitate eta irudi lan egin ditu, eta kartelak eta liburu irudidunak dira bere espezialitatea. Egile edo irudigile gisara, dozenatik gora obra ditu argitaraturik. Haietako batzuek sariak eta aipamenak jaso dituzte lehiaketa batzuetan. Irudigintzako Katalogo latin-amerikarrerako hautatu zuten 2013an, baita Bratislavako 2015eko Biurtekorako ere. Madrilen eta Andaluzian egindako zenbait erakusketatan hartu du parte. http://miguelcerrocreacion.com



Kalandraka

www.Pamiela.com
etxea

soltxate@pamiela.com